experiencias burocráticas del llamado campo socialista en el Este y por los compromisos de los socialistas occidentales con los capitalistas de su país.

Al mismo tiempo, las movilizaciones sociales prosiguen, cuando no se radicalizan. Nuevas formas de organización y de conciencia aparecen temporalmente sin conseguir hasta ahora producir un nuevo programa coherente. Pero sería un error subestimar su potencialidad de radicalidad.

Por supuesto, si fuera necesario hacer la lista de las derrotas de los movimientos sociales en los últimos años, la suma sería pesada. Pero la historia de las luchas emancipadoras no pasa por una simple contabilidad de derrotas y victorias.

La crisis que atraviesan los movimientos sociales bajo sus diferentes formas ¿pueden desembocar en un nuevo ciclo de acumulación positiva de experiencias y de conciencia? Los éxitos de los últimos años apuntan hacia un optimismo prudente y hay que convencerse que menos que nunca hay que colocarse en una actitud de espectador.

Es hora para los millones de personas y decenas de miles de organizaciones que luchan, de aprender a vivir juntos reconociendo la real complementariedad e interdependencia entre sus proyectos, de organizar y de afirmar la mundialización de las fuerzas de (re)construcción de nuestro porvenir unidos, de difundir la narración solidaria de este mundo.

Puntos de acuerdo entre movimientos en Porto Alegre 2001

1. Alternativa democrática e internacionalista a la mundialización capitalista neoliberal



Basada en la igualdad entre mujeres y hombres; profundizar la crisis de legitimidad del BM, del FMI, de la OMC, del Forum de Davos, del G7 y de las grandes multinacionales; anulación de la deuda del tercer mundo y el abandono de las políticas de ajuste estructural; exigir el alto de la desregulación del comercio, oponerse a ciertas utilidades de los OGM y rechazar la definición actual de los derechos de propiedad intelectuales en relación con el comercio (TRIPS); obstaculizar la política militarista (ejemplo, el Plan Colombia de los EE.UU.); afirmar el derecho de los pueblos a un desarrollo endógeno; encontrar fuentes de financiación sobre la base de la tasación del capital comenzando por una tasa del tipo Tobin; afirmar los derechos de los pueblos indígenas; necesidad de una reforma agraria y de una reducción generalizada del tiempo de trabajo...

b) Implantación de redes

Que tomen parte en el movimiento a escala planetaria.

c) Entrada en un ciclo de radicalización de una capa significativa de la juventud

las regiones en las que este fenómeno está más avanzado son América del Norte y el Sur de Europa así como Gran Bretaña y Escandinavia. Manifiestamente el fenómeno se extiende: la juventud se mueve y lucha en Argelia-Kabilia-, en Corea del Sur, Perú, México...).



BIDEGABEKERIA GLOBALIZATUAREN GURE MUNDU HAU

Jose Saramago

2002ko otsailaren 6a
Nazioarteko Foro Soziala

Florentzia inguruko nekazari-herrixka batean duela laurehun urtetik gora jazotako gertakari aipagarri bat kontatuko dizuet lehenbizi. Jazoera historiko garrantzitsu horri zuen arreta guztia jartzeko eskatzen dizuet; izan ere, eta ohi ez bezala, handik atera litekeen irakaspena jakiteko ez da kontakizunaren amaiera arte itxaron beharko: berehala azalduko zaizue begien aurrean.

Beren etxeetan zeuden herrixka hartako bizilagunak, edo soroak lantzen, norbera bere eginkizunetan, bat-batean elizako kanpaia joka hasi zenean. XVI. mendeaz ari garenez, ez legoke zertan harriturik, egunean hainbat aldiz jotzen baitzuten kanpaiak sasoi elizkoi haietan. Baina hil-kanpaiaren hotsa zen egun hartakoa, malenkoniatsua. Eta horrek bai harri-

tu zituela herritarrak, inor ere ez baitzegoen hiltzorian herrian. Irten ziren, bada, emakumeak kalera; elkartu ziren haurrak; utzi zituzten gizonetakoek beren lanak zein zereginak... eta luze gabe bildu ziren denak eliz atarian, zeinengatik negar egin behar zuten jakin zain. Kanpaiak beste minutu batzuek joko segitu zuen artean eta, azkenik, isildu egin zen. Handik gutxira elizako atea zabaldu eta nekazari bat irten zen. Ez zen hura, ordea, ohiko kanpai-jolea; harritzekoa ere ez zen, beraz, herritarrak galdezka hastea non zegoen kanpai-jolea eta nor zen hildakoa. "Kanpai-jolea ez dago; nik jo ditut kanpaiak", erantzun zuen nekazariak. "Beraz, ez da inor ere hil?" galdetu zioten herritarrek. Hona nekazariaren erantzuna: "Giza itxurarik eta izenik zeukan inor ez; Justiziagatik jo ditut kanpaiak, hilda baita Justizia".

Zer gertatu ote zen? Bada, herriko jauntxo aberatsa (inongo lotsarik gabeko markes edo konderen bat) aspalditik zebilela bere lurren mugarriak lekuz aldatzen, lurjabe txikien gero eta barrurago sartzen. Hala, jauntxoaren mugarriak zenbat eta aurrerago egin, orduan eta lur gutxiago nekazariak. Protestak eta kexuka hasi zen lehenbizi kaltetutako nekazaria; ondoren, erruki eske, eta, azkenik, agintarien esku jarri zuen auzia eta justiziaren babesa eskatu zuen. Alferrik dena: jauntxoak nekaza-

riari lurra kentzen jarraitu zuen. Orduan, desesperatuta, Justiziaren heriotza urbi eta orbe (munduaren tamaina justua izaten dute herrixkek bizi osoa hor eman dutenentzat) aldarrikatzea erabaki zuen. Duintasun- eta haserre-ekintza hark mundu osoa asaldatuko eta mundu osoko kanpaiak jarriko zituela usteko zuen beharbada, mundu osoko (arraza-, sinesmen- eta ohitura-ezberdintasunik gabe) hil-kanpaiak joko zituela egun hartan, salbuespenik gabe, Justiziaren heriotzagatik eta ez zirela isilduko hura berpiztu arte. Kanpai-hots hark etxerik etxe, hiririk hiri egingo zuen salto, mugez gaindi, itsaso eta ibaien gainetik soinu-zubiak eraikiz... Derrigor esnatu behar iskanbila hark lotan zegoen mundu osoa. Ez dakit zer gertatu zen ondoren: herritarrek lagundu ote zioten nekazariari mugarriak jatorrizko lekura itzultzen edo, Justizia hila zela jakinik, burumakur, etsita eta borrokarako adorerik gabe itzuli ote ziren eguneroko bizimodu tristera. Egia da, bai, Historiak ez dizkigula inoiz xehe-tasun guztiak azaltzen.

Lehenbiziko aldia izango zen hura munduko inongo bazterretan kanpai batek, brontzezko kanpai bizigabe batek, Justiziaren heriotzagatik negar egiten zuena, gizakien heriotzagatik hainbeste negar egin eta gero. Ez da inoiz gehiago entzun Florentzia inguruko herrikka haren hil-kanpai hots hura;

Justizia, ordea, egunero hil da, eta hiltzen da, orduz geroztik ere. Oraintxe bertan, hizketan ari natzaizuen momentu honetantxe, hemendik urritu edo hemen bertan, gure etxearen atarian, bakarren bat Justizia akabatzen ari da. Hiltzen den bakoitzean, berriz, badirudi ez zela inoiz existitu harengan konfiantza izan zutenentzat, Justiziatik espero litekeena espero zutenentzat: justizia, alegia, justizia besterik ez. Ez, ordea, antzokietako tunikez estalirik ageri den justizia, ez erretorika judizialaren hitz hantusteeekin gu nahastera datorrena, ez begiak benda ziezazkieten eta balantzaren pisuak trukatzeko utzi zuena, ez alde batera baino gehiago bestera ebakitzen duen ezpatadun justizia, oinezkoentzako justizia baizik, gizon-emakumeen eguneroko laguna, etikoa eta bidezkoa elkarren sinonimo zehatz eta zorrotz dauzkan justizia, espirituaren zorionari ezinbestekoa zaion justizia, gorputzaren bizitzari jakia zaion bezalaxe. Epaitegiek aplikatzen duten justizia, jakina, baldin eta legea badago haien gainetik. Are gehiago (eta batez ere) ekinean dabilen gizarte beraren berezko sorkuntza den justizia, ezinbesteko aginpide moralizat honakoa duena: gizaki orori izateko dago-kion eskubidea aintzat hartzea.

Baina, zorionez, kanpaiak ez zuten hiltzen zirengatik bakarrik jotzen. Eguneko eta gaueko

orduak emateko ere jotzen zuten, festara edo fededunen elizkizunetara deitzeko. Eta bazen garai bat (ez da hain aspaldikoa ere) zeinean kanpaiek ordara jotzen zutenean herri osoari dei egiten zioten hondamendi, sute, uholde... herrian gertatzen zen edozein ezbeharretan laguntzeko dei egiten ziotena. Gaur egun, berriz, betekizun erritualak beste eginkizunik ez dute kanpaiek. Florentzia inguruko nekazariaren jokabidea, beraz, zoro baten erokeriatzat hartuko luke gizarteak; edo, are okerrago, poliziaren esku jarri beharreko ekintzat. Beste batzuk, eta bestelakoak, dira gaur egun honakoa aldarrikatzen eta oihukatzen dutenak: justiziak gizakien bidelagun izan behar duela, espirituaren zorionerako baldintza ezinbestekoa dela justizia, baita -harrigarria dirudien arren- gorputza bera elikatzeke ere. Horrelako justiziarik balego, gizaki bakar bat gehiago ere ez litzateke gosez hilko, edo batzuentzat sendagarri eta besteentzat sendagaitz diren gaixotasunengatik. Horrelako justiziarik balego, gizateriaren erdiarentzat baino gehiagorentzat bizitza ez litzateke izango kondenazio izugarria. Kanpai-hots berri horiek, mundu osoan gero eta ozenago entzuten direnak, bestelako justizia baten aldeko erresistentzia eta ekimen sozialerako mugimenduak dira, banatze- eta barkatze-justizia berria aldarrikatzen dutenak, gizaki orok bere justiziatzat har lezake-

ena, askatasunak eta zuzenbideak babestutako justizia, ez horien ukapenen batek. Esana dut dagoneko badugula justizia horrentzako aplikazio-kode guztiz ulergarria: duela berrogeita hamar urte Giza Eskubideen Deklarazioan idatzitakoa, gaur egun erdi-isilpean aipatzen diren hogeita hamar oinarrizko eta ezinbesteko eskubide haiek, edo sistematikoki isilarazten direnak. Duela laurehun urte Florentzia inguruko nekazari haren jabegoa eta askatasuna baino hondatuago eta bortxatuago daude egun giza eskubideak. Esana dut, halaber, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalalak mundu osoko alderdi politiko guztien (ezkerrekoak deitzen direnenak, bereziki) programak ordezkari litzakeela, komatxo bat bera ere aldatu gabe, printzipioen zuzentasunari eta helburuen argitasunari dagokienez behintzat. Ezkerreko alderdiak, izan ere, herdoilduta geratu dira; egungo munduaren egoera latzari aurre egiteko formula zaharkituak, indargabeak edo arrotzak dituzte, begiak ixten dizkiote geroak duintasun arrazional eta sentikorrari (gizakien helburu gorena zela uste genuen hari) dakarzkion mehatxu izugarrien aurrean. Esan dezadan alderdi politikoez diodan gauza bera diodala lekuan lekuko sindikatuez eta, ondorioz, mundu osoko mugimendu sindikalaz ere. Kontzienteki edo ez-kontzienteki, gaur egun geratzen zaigun sindi-

kalismo burokratizatu hori da indarrean jarri den globalizazio ekonomikoaren prozesuak eragin duen lozorro sozialaren erantzule nagusietakoa. Ez nau pozten hori esateak, baina ezin nezake isilik gorde. Eta La Fontaineren alegiei neuk asmatutako pasartetxo bat eransten uzten badidazue, hona zer diodan: garaiz ekiten ez diogu (hau da, oraintxe bertan) giza eskubideen arratoia irentsi egingo du globalizazio ekonomikoaren katuak.

Eta demokrazia, duela milaka urte fede oneko atenastar batzuen asmakizun hura, garai hartako egoera sozial eta politikoan "herriaren gobernua, herriak eta herriarentzat" esan nahi zuena? Bihotz eta fede onez mintzo den jende askori entzun izan diot sarritan (baita halakoren itxura eman nahi duten zenbaiti ere) honakoa: ukatzerik ez dago hondamendigoeran dagoela gaur egun mundua; hortik ateratzeko eta giza eskubideak gauzatzeko aukera gehien, ordea, sistema demokratikoak ematen du. Egia, gaur egun demokratikoa deritzogun gizartearen kudeaketa-sistema honi beneratan demokratikoa deitzerik balego. Ez dago deitzerik, baina. Egia da botoa emateko eskubidea dugula; egia da Parlamenturako gure ordezkariak hauta ditzakegula, alderdiren baten bitartez ghitetan, herritar gisa ematen diguten subiranotasun-apurra beste norbaiten esku jarrita. Egia da,

azkenik, ordezkariak horien batu-
ketak edo konbinazioak gobernu
bat osatzea ekarri ohi duela,
gehiengoaren premiak behartuta.
Egia da hori guztia. Egia da, ordea,
hortxe hasten eta amaitzen dela
ekimen demokratikorako aukera
oro. Gustuko ez duen gobernu
kendu eta haren ordez beste bat
jartzea badauka hautesleak, baina
haren botoak ez dauka, ez du
eduki eta ez du edukiko eragin
aipagarriarik munduan (eta, ondo-
rioz, bere herrian eta bere buruan)
agintzen duen benetako indar
bakarrean. Botere ekonomikoaz
ari naiz, jakina, batez ere enpresa
multinazionalak gidatzen duten
zatiak (gero eta handiagoa).
Demokraziak helburu duen ongi-
zate orokorrek zerikusirik ez
dute multinazionalak eta horien
aginte-estrategiak. Denok dakigu,
hala ere, bizirik eta martxan bale-
go bezala jarduten garela demo-
kraziaz, benetako gertakarien kru-
deltasuna ikusten uzten ez digun
hizketaren eta buruaren automa-
tismoren batek eraginda edo,
demokraziaren hondakin batzuk

bakarrik geratzen zaizkigun arren:
erritu bihurtutako formak, meza
laiko baten moduko imintzioak
eta pausoak. Ez gara ohartzen
(horretarako begiak izatea aski
bada ere) gure gobernuak -onera-
ko edo txarrerako guk geuk hau-
tatzen ditugunak eta, ondorioz,
erantzule gaituztenak- botere eko-
nomikoaren komisario politiko
huts bihurtzen ari direla gero eta
gehiago, botere horri komeni zaiz-
kion legeak sortzeko eta, ondoren,
publizitate ofizial eta partikular
gozoaz estalirik, protesta handirik
gabe (sekula konforme egoten ez
diren gutxi batzuk salbu) gizarte-
ratzeko.

Zer egin daitekeen? Den-dena
eztabaidatzen da gure mundu
honetan: literatura, ekologia, gala-
xietako gerra, berotegi-efektua,
hondakinen tratamendua, zirkula-
zioaren kongestioa... Sistema
demokratikoa, ordea, ez da ezta-
baidatzen, mendeen amaiera arte
ukitzerik ez legokeen behin betiko
datua bailitzen. Oker ez banago,
baina, bi gehi bi nola zenbatu
ahantzi ez bazait, demokraziaren

eta horren gainbeheraren zerga-
tien inguruko eztabaida, herrita-
rrek jarduera politiko eta sozialean
izan behar duten partaidetzaren
ingurukoa, estatuen eta munduko
botere finantzario eta ekonomiko-
en arteko harremani buruzkoa,
demokraziari onartzen eta ukat-
zen zaioaren ingurukoa, zorionta-
sunerako eta duintasunezko bizi-
modua izateko eskubideari buruz-
koa, gizateriaren miseria eta itxa-
ropenaren ingurukoa edo, erretorika
gutxiagoz esanda, gizon-emaku-
meei buruzko (banaka zein guz-
tiak batera) eztabaida hasi beharra
dago, beranduegi izan aurretik.
Bere burua engainatzen duenare-
na baino engainu okerragorik ez
dago. Eta horrelaxe ari gara bizi-
tzen.

Besterik ez daukat esateko. Edo
bai, isiltasun unetxo bat eskatzeko
hitz bi besterik ez badira ere.
Florentzia inguruko nekazaria
berriz igo da elizako kanpandorre-
ra. Laster hasiko da kanpai-hotsa.
Entzun dezagun, arren.

Neoliberalismorik, militarismorik eta gerrarik ez: bakearen eta justizia sozialaren alde

1/ Munduko herritar askoren bizi-baldintzak etengabe txarrera ari direla ikusirik, Porto Alegreko Bigarren Nazioarteko Foro Sozialan elkartu gara mundu osoko gizarte-mugimenduak, milaka eta milaka lagun. Hemen gaude, mundu osotik etorriak, gure arteko elkartasuna apurtzen saiatu badira ere. Neoliberalismoaren eta gerraren aurkako borrokari jarraipena emateko asmoz elkartu gara, baita aurreko Foroaren erabakiak berretsi eta "bestelako mundurik egitea badagoela" gogoratzerare.

2/ Denetarik dago hemen: gizonezkoak eta emakumezkoak, gazteak eta helduak, nekazariak, arrantzaleak, hiriko jendea, herrietakoa, langileak, langabeak, ikasleak, profesionalak, emigranteak, herri indigenetako ordezkariak eta kolore, sinesmen eta joera sexual guztietako lagunak. Aniztasuna da gure indarra; hori adieraztea da gure batasunaren mamia. Elkartasun globaleko mugimendua gara, eta honako gai hauek lotzen gaituzte elkarri: aberastasuna lagun gutxi batzuen eskuetan izateak sortzen digun egonezina, pobrezia eta desberdintasun sozialaren hedapenak eta, azkenik, gure mundu hau suntsitzen ari direla ikusteak. Sistema alternatibo bat eratzen ari gara, sormenaren

bideak lagun ditugula. Sexismoa, arrazismoa eta indarkeria euskarri dituen sistema honen aurkako aliantza zabala ari gara eraikitzen gure borroka eta erresistentziaren bidez. Izan ere, kapitalaren eta patriarkatuaren interesei ematen die lehentasuna sistemak, herrien premien eta itxaropenen gainetik.

3/ Eguneroko drama latza-
ren eragilea dugu sistema: gosez, artapen mediku eza-
gatik edo erraz sendatzen
diren gaixotasunengatik hilt-
zen dira agureak, emakume-
ak eta haurrak. Familia askok
eta askok alde egin behar
izaten dute beste norabait
gerrak bultzatuta, garapen-
eredu 'modernizaleek' era-
ginda, laborantza-lurak
kendu egin dizkietelako,
hondamendi naturalen
batengatik, zerbitzu publiko-
en moteltzeagatik edo
komunitatearen barne-elkar-
tasuna hautsi egin delako.
Munduaren Hegoaldean zein
Iparraldean borroka ugari-
aldarrikatzen dute bizitzeko
duintasun apur bat.

4/ Aldaketa dramatikoak
eragin zuen irailaren 11ko
triskantzak. Erasoaldi terro-
ristak (goitik behera gaitzes-
ten ditugu, baita munduko
beste zenbait lekutan biztan-
leria zibilaren aurka egiten
diren erasoak ere) izan eta
berehala erantzun militar
masiboari ekin zioten

Ameriketako Estatu Batuek
eta haien aliatuek.
"Terrorismoaren aurkako
gerra" aitzakia hartuta,
mundu osoan urratu dira
eskubide zibil eta politikoak.
Afganistango gerra (hor ere
metodo terroristak erabili
ziren) beste fronte batzuetara
ari da hedatzen. Estatu
Batuetako gobernuaren eta
haren aliatuen agintea sendotzeko
etengabeko gerra
globalaren hasiera baino ez
da oraingo hau. Neoliberalismoaren
alderdi bortitzena eta gorrotagarri-
na erakusten digu gerra
honek: Islamaren sataniza-
zioa, batetik; bestetik, arra-
zismoa eta xenofobia nahita
ereiten jardutea. Hedabideen
informazioek, berriz, areago-
tu egiten dute gerra-giroa,
'zintzoen' eta 'gaiztoen'
arteko banaketaren bidez.
Gerrari aurre egitea da,
beraz, gure borrokaren ezau-
garri nagusietakoa.

5/ Ekialde Ertainak gerra-
ren itzalpean jarraitzen du;
Palestinako herritarrek eten-
gabe jasaten dute indarkeria.
Palestinarek elkartasuna
adieraztea, Israelgo estatua-
ren okupazio bortitzaren
aurka darabilten autodeter-
minazio-eskubidearen alde-
ko borrokarekin bat egitea
funtsezko eginkizuna du
mugimenduak, ingurune
hartako herrien segurtasune-
rako ezinbestekoa baita.

6/ Beste zenbait gertakari-
ere areagotu egiten dute
gure borrokaren premia.
Argentinan, adibidez, krisi
larria eragin dute gizartean
eta ekonomian NMFren poli-
tikak eta etengabe hazten
den kanpo-zorrak. Langileen
eta klase ertainen bat-bateko
protestak eragin zituen kri-
sialdiak (gobernuaren erre-
presioak, berriz, hildako
ugari), baita hainbat talde
sozialen arteko aliantza
berriak ere. 'Eltzekaden',
piketeen eta bestelako mobi-
lizazioen bidez lana eta bizi-
kondizio duinak eskatu
dituzte argentinarrek.

Gaitzetsi egiten dugu
Argentinako borrokari
sozialak kriminalizatzen a-
gerarazteko ahalegina, baita
askatasun demokratikoen
aurkako eraso oro ere.
Gaitzetsi egiten dugu mul-
tinazionalen jokabidea, herri
aberatsen laguntza bitarteko
handitu egin nahi baitituzte
lehendik ere izugarrizkoak
diren irabaziak.

7/ Enron transnazionalaren
porrotak, berriz, 'kasino-eko-
nomiaren' gainbehera eta
enpresaburu zein politikari
askoren ustelkeria utzi du
agerian; langile asko, berriz,
ez enplegu ez pentsio utzi
ditu. Herrialde pobretako
zenbait ustezko enpresarekin
iruzurkeriatan aritu zen aipa-
tu multinazionala; azpijoko
horien ondorioz hainbat
herri hustu egin ziren, herri-

tarrak lurrik gabe utzi ondoren, eta pribatizatu egin zituzten ur- eta elektrizitate-zerbitzuak.

8/ AEBetako gobernuak (hango enpresa handien interesak babestu nahirik edo) uko egin zion (harro egin ere) Kiotoko itunaren erabakiak (atmosfera berokuntzari buruzkoak) berresteari. Uko egin zion, halaber, beste honako itun hauek berresteari: misilen eta antzeko armen erabilera debekatzea agintzen dutenak, bioaniztasunari buruzko hitzarmena, arrazismoaren eta intolerantziaren aurkako NBERen ituna, arma konbentzionalak gutxitzeko akordioa eta beste zenbait. Nabarmen ikusi da berriro ere Estatu Batuen aldebarreko jokabideak hankaz gora jartzen dituela arazo orokorrei konponbide orokorrak aurkitzeko ahaleginak.

9/ Genoan, erabat egin zuen porrot G-8 taldeak munduari gobernu globala emateko bere buruari jarritako ahaleginean. Herriarren erresistentziari eta mobilizazio jendetsuari indarkeriaz eta errepresioz erantzun zitzaion; kriminalizat aurkeztu zituzten protestatzera ausartu zirenak. Hala eta guztiz ere, ez dute gure mugimendua kikildu.

10/ Ekonomiararen atzeraldia mundu osoan nabari den unean gertatu da, gainera, hori guztia. Herrien eskubideak eta bizi-baldintzak gero eta bortizkiago ari da suntsitzen eredu ekonomiko neoliberalak: edozein ekintzari deritzo zilegi akzioen balioari eusteko; milaka langile kale-

ratu, soldatak jaitsi eta enpresak itxi egiten dituzte. multinazionalak, langileen odolari azken zuku-tanta ere atera arte. Krisi ekonomikoaren eraginpean dauden gobernuak pribatizazioak eta gastu sozialaren zein langileen eskubideen murrizketa dute estrategia bakarra. Garbi erakusten du atzeraldi honek zenbateraino dioen gezurra neoliberalismoak hazkundera eta ongizatea agintzen dizkigunean.

11/ Erronka izugarriak ditu justizia sozialaren eta elkartasunaren aldeko mugimendu globalak: bakea eta giza eskubideak lortzeko pobrezia, bazterketa eta egungo agintea gainditu behar dira, gizarte jasangarria eskuratu behar da...

Gatazken konponbidetzat militarizazioa erabiltzea gaitzetsi egiten dugu gizartemugimenduok. Gaitzetsi egiten dugu, halaber, intentsitate txikiko gerren ugaltzea, baita Plan Kolonia eta Plan Puebla Panama izeneko operazio militarrek, arma-trafikoak eta gastu militarren hazkundera ere. Gaitzesten ditugu, orobat, herrien eta nazioen aurkako blokeo ekonomikoak -Kubaren aurkako bereziki, baina Iraken eta beste zenbait herrialderen kontrakoak ahanzi gabe- eta sindikatu, mugimendu sozial eta ekintzaileen aurkako errepresio gero eta handiagoa ere.

Kontratu formalak nahiz ez-formalak dituzten langileen borroka sindikalarekin bat egiten dugu, baita lan egiteko

zein bizitzeko baldintza duinak, greba egiteko, antolatzeke eta gizonetako eta emakumezkoen arteko soldaten zein lan-baldintzen berdintasuna lortzeko maila guztietan lan-hitzarmenak negoziatzeko eskubidea eskatzen duten sindikatuekin ere. Haurren esplotazioa eta esklabotzea gaitzetsi egiten dugu; bat egiten dugu, aldiz, haien borrokekin. Bat gatoz sindikatuekin laneko malgutasunaren, azpikontratazioaren eta irazpenen aurkako borrokan; nazioarteko arau berriak eskatzen ditugu enpresa transnazionalen eta horien bazkideen jardura kontrolatzeko, sindikatu bateko kide egiteko eta lan-hitzarmen kolektiboa izateko eskubideak babesteko bereziki. Basoak, lurrak eta ura kontrolpean edukitzearen eta bizi-baldintza duinen aldeko nekazarien eta bestelako mugimendu sozial borrokaekin ere bat egiten dugu.

12/ Pobrezia eta segurtasun-ezik handiagotara bultzatzen gaitu politika neoliberalak. Gogor gaitzesten ditugun haurren zein emakumeen trafikoak eta esplotazioak eragiten dituzten pobrezia eta segurtasun-ezak; bestalde, emigrazioa bultzatzen dituzte milioika lagun eta ukatu egiten dizkiete duintasuna, askatasuna, eskubideak eta legalitatea. Beraz, honako eskatzen dugu emigratu behar izan dutenentzat: norahi joateko eskubidea, segurtasuna eta legeko estatusa lanean ari diren herrialdeetan. Herri indigenen esku-

bideak ere aldarrikatzen ditugu, baita LANERen 169. Ebazpena betetzea eta herrialde guztietako legedietan sartzea (eta betetzea) ere.

13/ Behin eta berriro ordaindua dute kanpo-zorra Hegoaldeko herriek. Legitimotasunik gabekoa, bidegabea eta iruzurrezkoa da erabat zor hori: herrialde pobreak menderatzeko tresnatzat erabiltzen da. Horretarako, oinarri-oinarriko eskubideak kentzen zaizkie herri horietako biztanleei, zenbaiten lukurreriak eta diru-goseak eraginda. Kanpo-zorra bertan behera (inongo baldintzarik gabe) uztea exijitzen dugu, baita zenbait herrirekiko zor historiko, sozialak eta ekologikoak ordaintzea ere. Kanpo-zorra ordaintzeko eskatzen duten herrialdeak dira, hain justu, Hegoaldeko herrien natur baliabideak eta jakintza tradizionala neurri gabe ustiatzen dituztenak.

14/ Ura, lurra, jakiak, basoak, haziak, herrien kulturak eta nortasunak..., gizadiaren ondarea dira horiek guztiak, oraingo zein geroko belaunaldien ondasunak. Ezinbestekoa da, beraz, bioaniztasunari eustea. Beti jaki osasuntsuak (genetikoki aldatu gabeak) izateko eskubidea dute herriek. Oinarriko giza eskubidea da eskualde, herrialde eta nazio bakoitzaren elikagaien gaineko burujabetza. Horretarako, berriz, nekazaritza-erreforma demokratikoa egin beharra dago, baita nekazari lurra eskuratzeko eskubidea bermatu ere.

Cumbre Europea de Barcelona

Europako Batasunaren politikaren balorazioa: 2002ko sei hilekoa

ELAREN BULEGO TEKNIKOA

2002ko ekainaren 28a

Europako Batasunean sei hilabete hauetan (Espainiako gobernuak izan du EBren presidentzia) hainbat alorrean gertatutakoaren balorazioa egingo dugu hitzaldi honen bidez.

Honako gai hauei ekingo diegu bereziki balorazio honetan:

1. Europako Batasuna globalizazio neoliberalaren prozesuan.

Europako Batasunak ez du jarrera aktiborik azaldu globalizazio bidezkoago eta solidarioagoaren alde. Aitzitik, Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) sektore ekonomiko gehiagoren desaruketa are handiagoa bultzatzen saiatu da epe horretan EB.

Nazioarteko bi goi-bileraren inguruan izan duen jokabidea azpimarratu nahi genuke bereziki: Mexikoko

Monterrey hirian batzartu zen Garapena Finantzatzeko Nazioarteko Konferentzia eta FAOren Elikadurari buruzko Nazioarteko Goi Bileran (Erroma).

Gutziz dezepzionagarriak izan dira bi gailur horien emaitzak. EBren jarraera, berriz, honakoa izan zen batean zein bestean: munduan gosea ezabatuzeko edo garapenari ekiteko baliagarri liratekeen politiken inguruko eduki jakinik gabeko adostasunak lortzea.

Bartzelonako Goi Bileran (Monterreykoaren aurretik) Europako Batasunak ez zuen inongo konpromiso zehatzik hitzartu herrialde pobreen garapenerako laguntzaz, besterik esan izan bada ere. Konpromisoak hartu beharrean helburuak jarri zituen EBk. Eta ez dira gauza bera bata eta bestea. Gogoan izatekoa da,

bestalde, beste gai batzuen inguruan badela konpromiso zehatzik. Honakoa zioten Bartzelonako gailurrean: herrialde pobreen garapenerako BPGren % 0,39 erabiltzea da helburua 2006. urterako. Portzentaje horretatik nahiko azpitik dabiltzanez zenbait estatu (espainiarra, besteak beste: BPGren % 0,22 erabiltzen du garapenerako), honakoa erabaki zuten: "2006rako BPGren % 0,33, gutxienik, lortzen saiatu behar dute EBko estatu guztiek". Ohartuko zinatez, "saiatu behar dute" horretan dago gakoa: saiatu bai, baina portzentaje horretara heltzen ez badira... ez da ezer gertatzen. Lehengo lepotik burua, beraz.

FAOren gailurrari dagokionez, garbi erakutsi du EBko gobernuak goi-bilera horri egin dioten arreta eskasak zenbateraino kezkatzen dituen munduko herritar askoren goseak eta zenbateko ahalegina egingo duten hori ezabatzeko. Gailur horretan jazotako anekdota batek adierazten du beste ezerk baino hobeto EBko gobernuen kezka gosea dela-eta: goi-bileraren amaiera aurreratu egin zuten. Zer zela eta? Futbol-partidu bat ikusteko!!

2. Eztabaida Europaren geroaz

Europako Batzarren ekimenen inguruan erakunde horren presidentek ministro-kontseiluan aurkeztu beharreko txostenaren aipamena egin zuen Sevillako Goi Bilerak ondorioak aurkeztean. Honako hausnarketa eragin digu horrek:

Entzute-fasean daude oraindik Batzarren lanak; ez dago, beraz, behin betiko ondoriorik oraingoz. Kontseiluaren funtzionamendua hainbat aldaketa onartu ziren Sevillako gailurrean, itunetan aldaketarik eragingo ez badute ere.

Datorren uztailan amaituko da entzute-fasea eta orduan hasiko da aztertze-fasea. Azken fasea (gomendioak eta proposamenak egitekoa) urte honen amaieran edo 2003aren hasiera aldera da hastekoa.

Bereziki kezkatzen gaituzten bi alorretan gertatzen ari dena azpimarratu nahi genuke:

- Batetik, Europako eredu sozialaren inguruan gertatzen ari dena. Orain artean, apenas jorratu dituen Batzarrak alderdi ekonomikoak eta eredu soziala. Alabaina, Europaren geroari buruzko eztabaidak ez du bazterrerara utzi behar EBk gizarte-alorrean eman beharreko pausoen inguruko hausnarketa, are gutxiago laster Europako Batasuna hedatu egingo dela jakinik. Europar eredu soziala EBren Itunera bildu behar da, erabaki lotesle gisara bildu ere.
- Bestetik, estaturik gabeko nazioek European izan behar duten ordezkari dugu kezka. Batzarren osaera eta erakunde horretako kide direnen jarrerak ikusirik, ezin genezake aurrerapen handirik espero guk nahi genukeen bidetik, hau da, estaturik gabeko nazioak erabat aintzat hartzea Europak eta zuzeneko ordezkari izatea nazioek eurei dagozkien eskuduntzen inguruko erabakiak hartu behar direnean.

3. EBtik kanpoko inmigranteen kriminalizazioa

Gero eta tarte handiagoa izan du inmigratioak seihileko honetako bileretan. Sevillan, adibidez, goi-bileraren gai nagusia izan zen.

EBtik kanpoko inmigratioaren errepresioa: estrategia horretan

oinarritu dira gailur honetan hartu diren ondorioak.

Polizia gehiago, mugetan kontrol zorrotzagoak, asilo edo babes- eskubideak direla- eta Europako Batasunera sartzeko aukerak murriztea, in- migranteak are erra- zago kanporatu ahal izatea eta

lankidetzaz- zein elkarlan-hitzarmenak inmigranteen jatorrizko herrialdeei presioa egiteko erabiltzea, horra zein ditugun Sevillako goi-bileraren emaitzen ardatz nagusiak.

Are neurri gogorragoak eskatzen zituztenen asmoak ez dituzte asebe- te neurri horiek (Aznarrenak, adibi- dez); hala eta guztiz ere, ez dago ino- laz ere onartzerik neurrien sakoneko irizpideak. Izan ere, delinkuentzia- ren, segurtasun-ezaren eta langabe- ziaren eragiletzat aurkezten dizkigu inmigranteak gailurraren ikuspegiak. Jarrera eta irizpide xenofoboak bult- zatzen dituzte, beraz, ikuspuntu horrekin bat datozen gobernuak, EBren politikak justu kontrakoa izan behar lukeen arren: demokratikoa eta herritar guztien eskubideen babesle.

Kezkagarria da (estrategia okerra izateaz gain) European ultraeskuina- ren hazkundeari aurre egiteko hartu den bidea, hau da, haren ideia arra- zista eta baztertzailak gobernu-pro- grama bihurtzea. Inmigranteak Europa sartzeko saiatuko dira gero- ra ere, gero eta gehiago gainera. Mundu osoan globalizazioaren gida- ri diren politikak aldatu behar dira, eskubide guztiak (ekonomikoak,

Guztiz dezepzionagariak izan dira bi gailur horien emaitzak. EBren jarrera, berriz, honakoa izan zen batean zein bestean: munduan gosea ezabatzeko edo garapenari ekiteko baliagarri liratekeen politiken inguruko eduki jakinik gabeko adostasunak lortzea

Politika ekonomiko murriztaileak ari dira erabiltzen Europako Batasuna eraikitzeko. Euroaren eremuan sartzeko konbergentzia-irizpideek bazterrera utzi zituzten oinarri-oinarrizko beste zenbait gai, hala nola enplegu-maila, enpleguen behin-behinekotasuna edo babes sozialaren maila.

sozialak, kulturalak, giza eskubideak) nahitaez aintzat har daitezten. Gaur egun justu kontrakoa gertatzen da, ordea: irizpide makroekonomiko jakin batzuk eta merkataritzaren arauak dira ezin-

bestean aintzat hartu beharrekoak. Giza eskubide guztiak herrialde guztietan betearaztea, horixe litzateke munduko herritar askoz gehiago hobeto bizitzeko bidea, emigratu beharrik ez bailukete izango.

4. Aurrekontu-politika murriztailea

Politika ekonomiko murriztaileak ari dira erabiltzen Europako Batasuna eraikitzeko. Euroaren eremuan sartzeko konbergentzia-irizpideek (halako defizit publikoa gehiezin, halako interes- edo langabeziatasak) bazterrera utzi zituzten oinarri-oinarrizko beste zenbait gai, hala nola enplegu-maila, enpleguen behin-behinekotasuna edo babes sozialaren maila. Horrez gain, helburu haiek lortzeko eskubide sozialak baztertzea erabaki zuten EBko mandatariek. Konbergentzia-irizpideen ordez Egonkortasun eta Hazkunde Hitzarmena jarri dute orain indarrean. Hona zein den aipatu Hitzarmenaren gidaliburu eta irizpide bakarra: finantza publikoen kontrola eta defizit-maila jakin bat gainditzen duenari isunak jartzea.

Bartzelonako Goi Bilerak berretsi egin zuen Egonkortasun Hitzarmenarekin gobernuek duten lotura. Txostenak ez zuen inondik ere aipa-

tzen hazkunde ekonomikoaren gaur egungo atzeraldia edo moteltzea; gobernuek, ondorioz, ez zuten hedatze-politikaren premia aipatu beharrik izan, hori aurreko urtean Laekeneko hitzartutakoarekin bat ez etorri arren. Horrenbestez, Egonkortasun Hitzarmenak dioena baino are gogorragoa izango da EBren politika ekonomikoa. Goi-bileraren txostenak zioenez, "EBko estatuek eutsi egin behar diote epe ertaineko aurrekontu-xedeari, hau da, 2004rako (beranduenera ere) aurrekontu orekatuak edo superabitduak izan behar dituzte".

Ecofin delakoak ekainaren 20an eginiko bileran beste behin berretsi zuten jarrera hori: Politika Ekonomikorako Orientabideak izeneko txostenak agintzen zuenez (aho batez onartu zuten) aurrekontu-oreka edo horren inguruko egotza lortu behar dute EBko estatuek 2004an. Egia da zenbait estatutan eztabaida hasi dutela helburu hori malgutzearen inguruan. Baina -hona bitxikeria- eztabaida aldarrikatzen dutenek ez dute egiten hazkunde bultzatzeko edo gastu soziala handitzeko premiek eraginda, EBko zenbait gobernuk errenta handienei (lanekoak ez direnei) zergak murriztu nahi dizkietelako baizik.

Labur adierazita, gaiaren mamia hauxe dugu: hurrengo urteotarako aurrekontu-politikak murriztaileak izango dira. Talde batzuei (gutxiengoari) zergak murriztu egingo dizkiete; beste batzuei (gehiengoari), berriz, gastu soziala murriztuko zaie.

5. Ideologizazioa. Enpleguaren malgutasun handiagoaren bila

Erabateko enplegua erabili dute aitzakiatzat gobernuek seihileko honetan ere langileen eskubideak

murrizteko. Horra, adibide gisa, Italiako eta Espainiako gobernuek hartutako hainbat neurri.

EBko Kontseiluek eman diote estaldura teorikoa politika horri. Bartzelonako gailurraren ondorioek, esate baterako, honakoa zioten: "Arreta berezia egin behar zaie aurrerantzean ere enpleguaren eta lan-merkatuaren erreformari". Esan beharrik ez alor horietarako 'erreforma' hitza aipatzen dutenean lan-baldintzak txartzeaz ari direla.

Gobernuen iritziz, sindikatuen eginkizuna "patronalarekin enpresen egokitzeari buruzko hainbat gai negoziatzea da, hala nola negoziazio kolektiboa, soldaten moderazioa, produktibitatearen hobekuntza, etengabeko trebakuntza, teknologia berriak eta lanaren antolakuntza malgua". Zertan gauzatzen den hori guztia? Europako Batasunak honako neurri hauek (besteak beste) bultzatzeko gomendioa egiten duela:

- Lan-baldintzak (soldata, bereziki) enpresa bakoitzean erabaki behar dira. Sektorekako lan-hitzarmenek ez dituzte gutxiengo baldintzak finkatu behar.
- Aldi baterako eta lanaldi partzialeko enplegua hedatu egin behar da.
- Langileen irazpena (despidoa) merkatu egin behar da. Eta abar...

Aipatzekoa da Espainiako gobernua onartu berria duela bidegabeko irazpena nabarmen merkatzen duen neurri-sorta, lege-dekretuz onartu ere, hots, parlamentuan eztabaidatu gabe.

6. Babes soziala murrizteko politika

Babes sozialari dagokionez, argi mintzatu ziren Bartzelonako goi-

bileran elkartu zirenak: EBn langabezia-prestazioak eta pentsioak murrizteko eskatu zuten, gastu sozialaren egoera guztiz desberdinen arteko bereizketarik egin gabe, gainera.

Langabezia-prestazioei dagokionez, hainbat alor berrikustea proposatu zuten EBko agintariek: prestazioaren zenbatekoa ("soldataren ordezkatzetasa"), baita haren iraupena, egokitasuna (hau da, zenbat kotizatu behar den kobratu ahal izateko) eta beste zenbait alderdi ere. Proposamenaren argudio gisa, "lana errentagarri bilakatzen eta enplegua bilatzea sustatzen" omen du.

Espainiako gobernuak onartu duen langabezia-prestazioen murrizketak bat egiten du gomendio eta argudio horiekin. Beraz, Espainiako gobernuaren neurriak EBko agintariek bultzatu nahi dituztenen isla direla esango genuke.

Pentsioei gagozkienez, berriz, garaiz aurreko erretiroa oztopatzea eta erretiro-adina ahalik eta gehien luzatzea dira EBko buruen helburuak. Langabezia-prestazioen alorrean bezala, horixe da estatu espainiarreko pentsio-murrizketetan aplika-

tzen ari den politika, baita Grezian ere azkenaldi honetan. Helburua: zortzi urte barru (2010erako) bost bat urte luzatzea (batez beste) erretiro-adina Europako Batasunean.

Bistakoa denez, gobernuen asmoa honako hau da: bizi duina, autonomia eta kalitatezkoa izateko behar adina baliabide ekonomiko ez izatea herritarrek, eta; ondorioz, enpresen zein finantza-erakundearen interesei men egin behar izatea.

7. Desarauketa ekonomikoa sakontzen

Bartzelonako goi-bilerak hiru alorretako desarauketa ekonomikoari egin zien arreta berezia: energia (gasa eta elektrizitatea), garraio- eta komunikazio-sektoreetakoari. Gai horrek piztu zuen eztabaida biziena gailurraren aurretik eta Espainia, Britainia Handia eta Italiako gobernuak nahi baino gutxiago aurreratu zen horren inguruan.

Bi printzipio ditu abiapuntu EBren politikak gai honi dagokionez. Lehenbizikoa: hobe da pribatizatzea zerbitzu publikoak eskaintzea baino. Bigarrena: sektore ekonomikoen

arauketak kendu egin behar dira, lehia librea onuragarri baitzaio gizarteari.

Bi printzipio horiek, ordea, ez dira egia sakratuak, ezta gutxiagorik ere. Horren adibide ditugu estatu espainiarra (gasolina, telefonia mugikorra) edo Britainia Handia (trenbideak). Hala eta guztiz ere, Bartzelonako goi-bilerak hainbat urrats egin zituen desarauketa ekonomikoaren bidean energia-, garraio- eta komunikazio-sektoreetarako, guztiak ere biziki garrantzitsuak EBko herritarrentzat. Eta gero urrats gehiago egitekotan dira.

8. Ondorioak

Laburbilduz, enpresa handien zein kapitalaren mesedetan eta herritarren kaltetan ari da egiten gaur egun europar batasun-prozesua. Kutsu neoliberal nabarmena du europar ereduak, mundu osoko globalizazio neoliberalarekin bat datorrena.

Enpresa handien zein kapitalaren mesedetan eta herritarren kaltetan ari da egiten gaur egun europar batasun-prozesua. Kutsu neoliberal nabarmena du europar ereduak, mundu osoko globalizazio neoliberalarekin bat datorrena

Cumbre de la tierra Johannesburgo

Exportación a toda costa

La receta de libre comercio de Oxfam para el Tercer Mundo

VANDANA SHIVA

14 de mayo del 2002
zmag.org

El informe de Oxfam Internacional "Cambiar las reglas" sobre el comercio, la globalización y la lucha contra la pobreza es un audaz intento de combinar dos paradigmas –uno que da prioridad a la democracia popular, otro que da prioridad al comercio, el intercambio de bienes, y los mercados-.

El primer paradigma contextualiza y encastra el comercio en políticas más fundamentales basadas en los derechos del pueblo, la participación democrática, y la sostenibilidad ecológica. El segundo paradigma desmantela la democracia, la soberanía y la sostenibilidad como "barreras al comercio", coloca el comercio por encima de otros instrumentos de la política. Al desarraigar el comercio de su contexto social y ecológico, desmiembra a la sociedad y desintegra los ecosistemas. Crea pobreza al destruir el tejido de la seguridad económica y ecológica.

El 90 por ciento del informe de Oxfam reproduce las críticas de la globalización, aunque no reconoce su deuda hacia el movimiento antiglobalización e intenta ridiculizarlo acuñando el término "globófobo".

Oxfam parece estar contra los "dobles raseros" del comercio, excepto cuando se llega al capítulo 4 sobre el acceso a los mercados y el comercio agrícola. En este capítulo la liberalización del comercio y los mercados liberalizados se convierten en la razón de ser de la política económica. El capítulo comienza con la suposición estándar de la OMC y del Banco Mundial de que el comercio puede

El informe de Oxfam Internacional "Cambiar las reglas" sobre el comercio, la globalización y la lucha contra la pobreza es un audaz intento de combinar dos paradigmas –uno que da prioridad a la democracia popular, otro que da prioridad al comercio, el intercambio de bienes, y los mercados

constituir un poderoso instrumento para el crecimiento económico y la reducción de la pobreza.

Se supone que el acceso a los mercados sea la poción mágica para sacar a los más pobres de la pobreza. Sin embargo, el acceso al mercado no es más que otra palabra para orientarlo hacia la exportación y a ser dominado por la exportación. El comercio es sobre todo una relación entre un país exportador y un país importador. Al basarse por entero en el acceso al mercado de los países ricos importadores, Oxfam oculta y hace invisibles los costes económicos, sociales y ecológicos generados por las políticas agrarias obsesionadas por la exportación y dominadas por ésta en los países pobres del Tercer Mundo. Aunque el acceso al mercado sugiere que se llama a los países ricos a hacer un sacrificio, son los países pobres a los que se pide un auténtico sacrificio.

El aumento de las exportaciones agrarias y el acceso al mercado implica también un aumento del consumo en los países en los que el consumo no sostenible ya está empujando los limitados recursos de la tierra más allá de su capacidad. ¿Cuántas camisas y jeans pueden usar los consumidores ricos, cuántas más judías verdes y fresas pueden comer? El informe de Oxfam no ve las implicaciones para el consumo no sostenible basado en el aumento de las exportaciones de los países pobres a los países ricos. Ignora el hecho de que en la agricultura el mayor consumo en los países ricos se basa en menos consumo para las necesidades básicas y por lo tanto en más pobreza en los países pobres.

Ya que el comercio agrícola se basa en tierra, agua y biodiversidad, y la existencia de tierra y agua es limitada, las políticas agrarias orientadas a

la exportación desvían la utilización de recursos naturales para producir a bajo costo productos de lujo en los países pobres, para consumidores ricos en los países ricos. Transfiere el control de los recursos de los pequeños campesinos y pescadores a las corporaciones del agronegocio, destruye la base de recursos naturales mediante un uso no sostenible y en el proceso destruye el sustento de los pequeños productores y crea pobreza en lugar de eliminarla.

El Banco Mundial está exigiendo a todos los países del Tercer Mundo que encaminen su agricultura hacia una agricultura orientada a la exportación concentrándose en las exportaciones de carne, productos marinos, flores y vegetales. La "nueva" receta de Oxfam es la vieja receta del Banco Mundial de dar prioridad a la exportación. La única diferencia es que Oxfam la rotula en la jerga de la OMC como "acceso al mercado" mientras que el Banco la llama liberalización del comercio y reformas económicas. La receta deja de lado a los pobres por tres motivos.

Primero, desvía los escasos recursos de tierra y agua de la satisfacción de las necesidades locales de alimentos al suministro a mercados de exportación, creando así hambre y condiciones para la inanición de las comunidades más vulnerables y marginales. Es lo que ocurrió durante el colonialismo y está ocurriendo bajo la recolonización de la globalización. Como ha demostrado Utsa Patnaik, un conocido economista indio, bajo el régimen británico el consumo per capita en India declinó de 200 kg/ha en 1918 a 150 kg en 1947. Las cosechas de granos no alimenticios se expandieron 10 veces más rápido que las de granos alimenticios, alimentando los mercados de exportación.



El Banco Mundial está exigiendo a todos los países del Tercer Mundo que encaminen su agricultura hacia una agricultura orientada a la exportación concentrándose en las exportaciones de carne, productos marinos, flores y vegetales

La Gran Hambruna Bengali que mató a 2 millones de personas fue el resultado. En Java, bajo el dominio holandés, las cosechas de exportación se expandieron en un 600%, mientras que el consumo de arroz en cáscara disminuyó de 199 kg/cop en 1885 a 162 kg/cop en 1940.

La relación inversa entre el aumento de las exportaciones y la disminución del consumo local y nacional de alimentos ha sido mostrada bajo las estrategias centradas en la exportación de los Programas de Ajuste Estructural del Banco Mundial. En Nigeria, Etiopía, Sudán, Kenia, Tanzania y Zaire, que suman un 60% del África Sub-Sahara, ha habido una disminución de un 33% en la producción de cereales por cabeza y una disminución de un 20 por ciento en la producción general de alimentos por cabeza en menos de una década. Todos los países mostraron un aumento de las exportaciones agrícolas por cabeza al mismo tiempo que disminuía la producción por cabeza de alimentos para el consumo.

Oxfam, que comenzó como una agencia de socorro contra el hambre, parece haber olvidado sus orígenes y no ha presentado ni una sola vez el tema del derecho a los alimentos y del hambre en su capítulo sobre las exportaciones agrícolas.

En segundo lugar, la cifra de un ingreso de 100.000 millones de dólares adicionales para los países exportadores, oculta el costo para los ecosistemas locales y la subsistencia local cuando los campesinos y los pescadores son desplazados por las corporaciones de exportación y el agrocomercio, que utilizan sistemas no sostenibles para aumentar al máximo sus beneficios y utilidades. En los sectores preferidos de la carne, las flores y las gambas, un costo escondido de 10 dólares resulta en términos de devastación ecológica y sustentos arruinados por cada dólar de beneficios de exportación para las compañías. La cifra mágica de 100.000 millones de dólares de Oxfam para el aumento en los ingresos por exportación, esconde por lo tanto un millón de millones de dólares en destrucción social y ecológica en las economías locales, dejando empobrecidas a las comunidades locales. Es el motivo por el que la gente local protesta contra toda factoría de gambas, cada unidad floral, cada mata-dero.

Tres áreas de exportación que han sido fuertemente impulsadas bajo el nuevo régimen de liberalización del comercio han sido el cultivo acuático, la floricultura y la carne. Según la ideología oficialmente admitida del libre comercio los beneficios de las exportaciones de gambas cultivadas, de flores y carne, deberían financiar las importaciones de alimentos, y por ello, más que compensarían toda escasez causada por la diversión de la capacidad productiva del cultivo de alimentos para el consumo interno a la producción de productos de lujo para el consumo por consumidores ricos en el Norte.

**Las ecuaciones son claras:
La globalización es igual a
inseguridad y exclusión.
La democracia económica y
la localización significan
seguridad e inclusión.**

Sin embargo, no es ni eficiente ni sostenible producir gambas, flores y carne para la exportación en India. En cada uno de estos casos se destruye más capacidad nacional de producción de alimentos debido a la diversión de recursos y a la destrucción de ecosistemas, que el alimento que puede ser comprado en los mercados globales mediante las exportaciones. En el caso de las exportaciones de flores, India gastó 1.370 millones de rupias en divisas extranjeras para promover las exportaciones de la floricultura, y ha ganado sólo 320 millones de rupias. India puede comprar sólo un cuarto de los alimentos que podría haber cultivado, con los beneficios de exportación provenientes de la floricultura.

Nuestra seguridad alimenticia ha disminuido por lo tanto en un setenta y cinco por ciento, y nuestra pérdida en divisas extranjeras aumentó en más de 1.000 millones de rupias. En el caso de las exportaciones de carne, por cada dólar ganado, India está destruyendo quince dólares en funciones ecológicas realizadas por los animales en las granjas para la agricultura sostenible. El ganado en India es la fuente de fertilizantes orgánicos y de energía renovable. Cuando es sacrificado para la exportación, esos servicios esenciales provistos gratuitamente por el ganado al campesino, son destruidos y tenemos que importar fertilizantes químicos y combustibles fósiles, aumentando así los gastos en moneda

extranjera y llevando a una mayor inestabilidad del clima.

Las ecuaciones son claras:

La globalización = inseguridad y exclusión.

La democracia económica y la localización = seguridad e inclusión.

Oxfam tiene un sueño de construir un movimiento para transformar el sistema de comercio, igual de poderoso que el movimiento contra el apartheid en África del Sur. Para eso, Oxfam necesita avanzar con los movimientos de la gente y extraer de ellos su pasión, su poder, y su legitimidad.


Ahora Oxfam tiene que elegir ¿estará a favor de un comercio regulado por los principios de paz, justicia y sostenibilidad, o se convertirá en un vocero débil, dependiente, de los intereses dominantes del libre comercio?

¿Pondrá la paz y la seguridad de la gente por sobre el comercio y el intercambio?

¿Pondrá primero a la gente o al comercio?

¿Pondrá primero a los alimentos o a las exportaciones?

¿Se decidirá por emprender una lucha a fondo por el cambio estructural y la transformación de las reglas del comercio y del paradigma del libre comercio?



Kultur aniztasuna. natur aniztasunaren **ispilu**

RIGOBERTA MENCHÚ TUM

*Cartagena, Kolonbia.
Rigoberta Menchú Tum Bakearen
Nobel saridunaren hitzaldia
Ingurumenaren Ministerio arteko
Foro Globalaren hasierako ekital-
dian.*

*2002ko otsailaren 13a
Ostera Revista Memoria-n argitara-
tua*

"Zuen jardunak emankorrak iza-
tea nahi nuke, eta Garapen
Jasangarriaren inguruko hurrengo
Nazioarteko Konferentziaren presta-
keta-prozesuan orain arte lortutako
emaitza eskasetatik haratago era-
man gaitzatela zuen gomendioek.

Kultur aniztasuna

Maien mundu-ikuskeran, herri eta
kultura bakoitza inguruan duen
natur munduaren ispilua da. Nekez
imajina genezake hartz zuri bat
Amazonian; nekez Masai herria
Groenlandian. Natur aniztasunaren

ispilua da kultur aniztasuna. Bizi guz-
tiak elkarrekin harmonian bizi diren
aniztasunen batasuna da Sorkuntza.
Baso bat suntsitzen, bizi-era bat
bortxatzen, hizkuntza bat galtzen,
zibilizazio-mota bat ezabatzen den
